



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-07-08**

VII URTEA 1.748. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Erakundeen laguntza eskatu du ELAk Gorostidiren iraupenerako

TOLOSA Enpresa lehiakorra dela, baina «kudeaketa txarraren ondorioz», likidezia falta duela argudiatu dute

LANGILEEN EGOERA Abendutik EREan daude; uztailaren 31n amaitzen da, eta gero ez dakite zer gertatuko den 4



Plaza Berrian jai giroa zen nagusi atzo gaztetxoenen artean. E. IRAOLA



A. IMAZ

ANDRES ARAMENDI PILOTA EPAILEA

«Dirua tartean bada epailea egongo da, onerako eta txarrerako»

IBARRA 35 urtez epaile aritu ostean jubilatutako egun da; Aurrera-Saiazek omendu egin zuen 5

TXIKIENEK EDERKI IGARO DUTE SAN FERMIN TXIKI EGUNA

TOLOSA Alde Zaharrean sanferminak irudikatu zituzten atzo; jokuak, txupinazoa, buruhandiak, entzierroa eta 'pobre de mi'-a izan zituzten 2

Manifestazioa egingo dute etzi, Santiago egoitzako langileek

VILLABONA «Eskaerak egiteagatik sortu den egoera salatzeko» deitu dute 6

Garagardo Azokak antolatzaileen aurreikuspenak bete ditu

IRURA Bildutako dirua ikastolaren eraikin berria ordaintzeko baliatuko dute 3

Jaiak» Suziria bota ostean lehertu zen egun osoan zehar luzatu zen jai; buruhandiak, txokolatea eta entzierroa izan ziren.

ENERITZ IRAOLA

Tolosara ere iritsi zen San Fermin giroa. Atzo egun osoan zehar San Fermin Txiki jaiaz gozatzeko aukera izan zen Alde Zaharreko kaleetan. Zuriz jantzi, lepoan zapi gorri jarri eta jai giroan murgildu ziren bertaratu zirenak. Suziria jaurti ondoren lehertu zen jai eta Iruñean egiten den antzera, *Pobre de mi* famatua abestu ondoren lepoko zapia kendu eta bukaera eman zitzaion San Fermine. Aurtengoa jai hau jarraian ospatzen duten bosgarren aldia da.

12:00etan hasi zen jai, suziria jaurtitzearekin batera. Honen os-

Alde Zaharrean ere txuri-gorria nagusitu da San Fermin Txiki jaietan

tean, gozokiak eta globoak banatu zituzten. Haurrek ondoren, korrika saioak egin zituzten buruhandietatik ihes egin nahian.

«**Zezenak**» Tolosako kaleetan entzierroak ere izan zuen bere lekua Tolosako kaleetan. 17:00etan hasi zen entzierro txikia Errementari kalean. Handik, Solana kalean barna Plaza Zaharrera joan ziren. Letxuga kaletik eta Korreo kaletik igarota Plaza Berrira iritsi ziren. Bertan eman zitzaion amaiera entzierro txikiari. Korrika saioen ostean, indarra berreskuratzeko aukera izan zuten, txokolatea banatu baitzuten bertaratu zirenen arte-

an. Haurrentzat jolasak ere egon ziren.

Pobre de mi bestiarren ondoren amaitu zen San Fermin Txiki eguna. Datorren urtera arte itxaron beharko da berriro ere egun hone-taz gozatu ahal izateko.

Tradizio handiko jai

Tolosako San Fermin jaiak ez dira berriak. 50. hamarkadan ere ospatzen baitzituzten. Errementari kaleko 38. zenbakian zegoen El Tuerto tabernako jabea zen Jose Villanueva eta 12 kide inguruk, Katxutxo peña sortu zuten. Hauek hasi ziren sanferminak ospatzen Alde Zaharrean.



Udaleku irekietan ere San Fermink

JAIK» Atzo San Fermin eguna izanik, jai giro hori irudikatzen saiatu ziren udaleku irekietan. Laskorain Ikastolak antolatzen dituen udalekuetan dabilzan 2 eta 8 urte bitarteko 160 haur inguru txuri-gorri jantzi eta San Fermin giroan barneratu ziren. Zezenaren aurretik korrika eta saltoka ibili ziren. HITZA



Goian suziria jaurti zuten ueña eta beheko irudian haurrak buruhandietatik ihes egin nahian. I. TERRADILLOS / E. IRAOLA



To.Pic Zentroa hainbat ordezkari bisitatu dute

TOLOSA» To.Pic eraikitze lanetan dagoen Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak izan ditu lehen bisitak. Pasa den larunbatean dFeria09ko profesional, programatzaile eta konpaniako kide gonbidatuek bisitatu zuten. Baina ez da

bisita bakarra izan, atzo goizean Arritxu Maraion PSEko Gipuzkoako diputatua izan zen Oscar Renedo Tolosako Udaleko zinegotziarekin batera. Miguel Arretxe eta Idoia Otegi zentroko zuzendariak egin zituzten gidari lanak.

Zentroa datorren udazkenean irekitzea aurreikusten dute Tolosako Ekinbide Etxeko ordezkariak. To.Pic batez ere haurrei zuzenduriko egitasmoa izango da, eta hori nabarmendu zuten PSEko ordezkariak. HITZA / N. LATABURU

Mahala Triatloi Taldea Espainiako Txapelketan ariko da asteburuan

Kirola » Gasteizen lehiatuko dira distantzia luzeko txapelketan igandean; ironmanetan emaitza onak lortu dituzte.



Mahala Triatloi Taldeko kideak. HITZA

ERREDAKZIOA

Denboraldiko zita garrantzitsuenetarikoa bat izango dute aurretik igande honetan, hilaren 12an, Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeko mutilek, Gasteizen Espainiako distantzia luzeko txapelketan lehiatuko baitira. Bertan, goizeko zortzietan irteera eman ostean, lehenik 4 kilometro egin beharko dituzte igerian Landako Natur parkeko urtegian, jarraian 120 kilometro egingo dute bizikletan inguruko errepideetatik Gasteizairitsi arte, eta amaitzeko, 30 kilometro korrika Salburuako lorategien inguruan.

Taldea «gogotsu» doa; izan ere, «Zarautzen Euskadiko distantzia luzeko txapelketan hirugarren postua lortu genuen duela aste batzuk, eta aurreko asteburuan ere Donostian jokaturakoan 5. postua lortu genuen, beraz itxaropentsu gaude».

Bestalde, taldeko kide diren Karlos Maderak eta Unai Aizpurrak emaitza onak lortu berri dituzte ironmanetan. Lehenak Nizakoa 10:28:06 denborarekin amaitzea lortu zuen, eta Aizpurrak, berriz, Frankfurtukoan 10:29:26ko denboran egin zuen.

Laburrak

Alpino Uzturrek mendi irteera antolatu du

TOLOSA » Alpino Uzturre elkarteak iganderako, hilaren 12rako mendi irteera antolatu du. Valdegibuan (Araba) hasi eta Tobaliran (Burgos) bukatuko da. Bachicabo (1.199 m.), Mota (1.319 m.), Cueto (1.367 m.) eta Revillolanos (1.281 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusaren irteera Santa Klaratik 07:00tan aterako da. Bazkideek euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 13. Izen-emateak elkartearen, 943 65 27 89 zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean egin ahaliko dira.

'Man on wire' bihar eta larunbatean zine forumean

TOLOSA » Bihar eta larunbatean *Man on wire* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan, zine forumearen barruan. Bihar 19:30ean izango da ikusteko aukera, eta larunbatean, berriz, 22:30etik aurrera emango dute.

Oargik hainbat ekintza antolatu ditu astebururako

TOLOSA » Asteburu honetarako hainbat ekintza antolatu dituzte Oargi elkartetik. Hilaren 11n Araban arroilean jaitsiera egingo dute. Hau doan izango da bazkideentzat, eta ez bazkideek 4,5 euro ordaindu beharko dute. Larunbat arratsaldean, berriz, autobusa hartuko dute Santa Klaratik, 16:00etan Panticosa aldera joateko, igandean Tendenera mendia igotzeko asmoz. 55 euro ordaindu beharko da irteera honetarako. Igandean Eginora joango dira eskalatzera, 12:00etan abiatuta.

Salamancara irteera antolatu du Harizpeak

TOLOSA » Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatu du Tolosako Harizpe jubitatu elkarteak. Interesatuak elkartearen bertan eman dezakete izena. 257 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta 262 ez bazkideek.

Antolatzaileak «gustura» Garagardo Azokak aurreikuspenak bete dituelako

Irura » Aurreko azoketan izandako irabazi antzekoak izan dituzte; antolatzerik ekitaldien balantze baikorra egin dute.



Larunbatean, 70. hamarkadan giroturiko festa bihurtu zen Garagardo Azoka. Irudian, garaiako autoak. HITZA

ERREDAKZIOA

Nahi adina garagardo mota eta jaki ugari dastatzeko aukera izan da Iruran, ostiraletik igandera bitarte zabalik izan duten Garagardo Azokan. Jendea erruz hurbildu da bertako giroa gertutik ezagutzera, eta antolatzaileak «gustura» daude, beste behin ere «arrakastatsua» izan baita.

Azalduta dutenaren arabera, «alde batetik ekonomikoki beste urteetan bezalako irabaziak izan ditugu, beraz, Garagardo Azokan krisia ez dela nabaritu esango genuke. Bestalde, janaria eta eda-

ria ere asko saldu dugu, eta igandetarako jaki batzuk jada bukatu egin zitzaizkigun, egin genituen aurreikuspenekin motz geratu ginen seinale».

Lorpenekin, beraz, gustura daude antolatzaileak, eta baita, azokaren baitan antolatzerik ekitaldiekin ere: «larunbatean izan zen garaiako kotxeen erakusketa eta play back-a ikusten jende ugari izan zen, eta pozik gaude». Izan ere, aurreko berrikuntza bezala, 70. hamarkadaz mozturrotu nahi izan dute azoka; hori larunbatean izan zen, garai hartako autoak eta jantziak ematera gonbidatu zutelarik jendea.

Ikastolaren eraikin berrirako

Bestalde, Garagardo Azokaren helburu nagusia, bertan lortutakoa ikastolaren eraikin berrirako baliatzea izan da, eta aurreikuspenak bete dituztenez, alde horretatik ere pozik daudela esan behar. Hala, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete «etorri diren guztiei eta hau aurrera ateratzeko gauzak erraztu eta utzi dizkiguten guztiei».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Tolosa » Sei hilabetez EREan egon ostean, uztailearen 31n amaitzen zaie; hortik aurrera ez dakite zer gertatuko den.

ESTI EZEIZA

«Gorostidi hiltzen utzi behar al duten» galdera luzatu zien atzo ELA sindikatuko ordezkariak erakunde publikoei. Tolosako enpresak azken hilabeteetan bizi duen egoera «latza» ikusita, eta honek izango duen etorkizunaz arduratuta, langileen batzordearen gehiengo duen sindikatuak agerraldia egin zuten beraien hausnarketa azalera zeko.

Duela sei hilabete inguru enpresa zuzendaritzak lan erregulazio espediente bat aurkeztu zuen, eta horitutik EREan daude. Egoera hau uztailearen 31ra arte luzatuko da, baina langileen batzordekoek agertu dutenez, hortik aurrera ez dakite zer gertatuko den beraiekin. Hau da, ikusteke dago EREa luzatuko den edozein 168 lagunek egiten dute lan egun Gorostidin, baina horrez gain, eskualdeko beste hainbat enpresa txiki ere ematen diete lana. Honenbestez, ehunka familiar pairatuko lituzkete Gorostidiren itxierak ekarriko lituzkeen ondorioak.

Unai Martinez, Metaleko Federazioko idazkari nagusiak atzoko agerraldian agertu zuenez, une honetan alarma gorria piztuta dute, oso ilun ikusten baitute enpresaren etorkizuna. Gainera, zuzendaritzak ez die inongo informaziorik ematen, eta ez die kudeaketa txostenik agertu nahi. Garbi utzi zuen, enpresak likidezia falta duela, eta horri aurre egiteko, Kutzaren, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ezinbestekoa dutela. «Bes-

Erakunde publikoei dei egiten die ELAk, Gorostidi aurrera ateratzeko



ELA sindikatuko ordezkariak eta Gorostidi enpresako langileen batzordeko kideak agerraldia egin zuten atzo. E. EZEIZA



168 lagunek egiten dute lan Apatta Erreka industriagunean kokatuta dagoen Gorostidi enpresan. M. SOROA

te alde batera begiratu behar», arazoa konpontzen laguntzeko eskatu zieten Martinezek hauei. Honez gain, erakunde publiko horiekin guztiekin biltzeko prestutasuna agertu zuten eta baita, Gorostidiko batzordea osatzen duten LAB eta USO sindikatuetaordezkariekin ere. Egun, langileen batzordea, ELAko sei ordezkariak, LABeko bik eta USOkobatek osatzen dute.

Gorostidik egun bizi duen egoera ekonomikoa «gogorra», kudeaketa «txarraren» ondorio dela uste dute ELAkoek. Izan ere, Martinezen hitzetan, «Gorostidik merkaturia eta lana badauka, produktu erakarria egiten du eta 2008an ere lan asko egin zuen». Behin eta berriz nabarmendu zuenez likidezia falta da arazoa. Krisiari aurre egiteko eta enpresaren etorkizuna bermatzeko, zuzendaritzaren norabidea aldatu beharra dagoela nabarmendu zuten sindikatu aberztalekoek, eta horretarako administrazio kontseiluak neurriak hartu behar dituela.

Ekaineko soldata oraindik ez dute jaso langileek, eta beldur dira, uztailekoa eta aparteko ordainsaria ez ote dieten ordainduko. «Hau horrela bada, eta egoerak berdin jarraitzen badu, mobilizazioetan hastea ez dugu baztertzeko» agertu zuen Martinezek. Izan ere, azaldutakoaren arabera, une larri hauetan ere, lan handia egiten ari dira langileak. Bestalde, abuztaria bitarteko hainbat eskari eginda daude, eta ordura arteko lana ziurtatua dute. 2010-2011 irako ere zentzuzko hitzartuta dituzte.

Transernioko txapelketan, Villabona, Alegia eta Amezketakoak ariko dira bihar

Pilota » Bigarren jardunaldiak bihar jokatu dira Adunako pilotalekuan, 19:00etatik aurrera; hiru partida izango dira.

ERREDAKZIOA

VI. Transernio Pilota Txapelketa hasi zen joan den asteburuan. Lau mailako pilotariak ari dira lehiatan bertan. Larunbatean, esaterako, kadeteen mailan binaka aritu ziren. Lehen partidari Añorga eta Villabona aritu ziren elkarren aurka. Donostiarrek 4 tanto egin zituzten, eta besteek 16, garaipena erdietsiz. Bigarren partidari, Amezketakoak Hernanikoen aurka aritu ziren. Eskualdekoek irabazi zuten, besteak 5 tantorekin utziz.



Joan den larunbatean hasi zen jokatzen Adunan, Transernio pilota txapelketa. N. URBIZU

Kadeteetan, lehen partida Usurbil eta Alegikoena izan zen. Hemen ere 15-22ko emaitzarekin, Tolosaldekoak izan ziren garaile. Azken partida, Hernani eta Azkoitikoaren artekoa izan zen. Hauen artekoa 9-22an amaitu zen.

Bihar, bigarren jardunaldia

Bihar alebinen eta infantilen txanda izango da. 19:00etan hasiko dira norgehiagokak, eta aurrekoak bezala, Adunako pilotalekuan izango dira. Denera hiru partida jokatu dira. Hasteko, Lasarteakoak Villabonakoaren aurka ariko dira. Ondoren, Azkoitikoak, Alegikoaren kontra. Amaitzeko, eskualdeko bi bikote: Amezketak eta Villabonakoak.

Larunbatean partida gehiago izango dira 16:00etatik aurrera. Benjaminetan, Bidegoian eta Lasarte izango dira aurrez aurre. Ondoren, Azkoiti eta Usurbil. Infantiletan, Bidegoianek Azpeitia izango du aurkari. Azkenik, kadeteetan, Bidegoianek Villabonakoaren aurka lehiatuko dira.

E Elkarrizketa

ANDRES ARAMENDI ▶ Pilota epailea

«Dirua tartean baldin badago epailea onerako eta txarrerako egongo da»

Ibarra » Euskal pilotarekin beti harremanetan izan da; txikitan jolasten, gero ikusle, epaile eta Aurrera-Saiazko delegatu; epaile gisa jubilatzeke garaia heldu zaio 35 urte ondoren.

NEREA URBIZU

35 urte gutxienez Beotibarren igarotu ditu Andres Aramendik (Ibarra, 1944), epaile lanetan lehenengo eta ondoren Aurrera-Saiazko pilota eskolako delegatu. 65 urte bete ditu aurten eta ondorioz, profesionalen mailan pilota partidak ezin-gitu epaitu, jubilatzeke garaia iritsi zaio.

Jubilatzeko garaia heldu zaizu. Horrek zer esan nahi du?

Epaileen eskolatik 65 urterekin atera beharra dago, hortik aurrera ezin da gehiagotan epaitu profesionalen partidarik. Baina eskolartekoak epaitzen jarraitu dezaket eta jarraituko dut. Ez denak, baina Beotibarren egongo naiz.

Beraz, Beotibarren ikusiko zaituzte oraindik?

Bai, bai. Koordinaketa lanetan jarraituko dut Aurrera-Saiazekin, eta ez lehen bezala edo lehen bezain beste baina han izango naiz partida batzuk ere epaitzen, beste maila batzuetan: afizionatuekin, eskolakoekin... Aldatzen dena da profesionalenak ez ditudala epaituko. Irailean berriaz hasiko naiz Beotibarren.

Epaile izatearekin hainbat lekutan aritzea egokitu zaitzaizun.

Bai, batez ere Gipuzkoan aritu naiz. Profesionalen aritzen nintzanean Beotibarren bertan, Lazkaoan, Hondarrribian, Eibarren... Gehienetan ingurukoak izan dira, Tolosaldean eta Goierrian.

Nolatan hasi zinen epaile lanean?

Hemen pala motza txapelketa egiten zen eta Beotibarren hasi nintzen epaile bati laguntzen, epaile bezala egiten. Hark animatu ninduen epailearen karneta ateratzera eta horregatik egin nuen. Gero Luis Galarragarekin hasi ginen eta epaileen beharra zegoen orduan ere. Aurrerago, Ibarren txapelketa bat urte askotan antolaten aritu nintzen (umeena eta afizionatue-na) eta han ere epaile lanetan aritu nintzen. Horregatik karneta atera behar zela ikusi nuen.

Inoiz bueltatu al zara etxera epaitutako partida oso gaizki egin duzula pentsatuz?

Batzuetan hurbiltzen dira pilotariak, esanez hanka sartu dugula epaitzeko garaian, baina niri ez zait inporta. Partida bukatu izan dene-



ASIER IMAZ

an, pilotariarengana hurbildu eta azaldu behar izan diet zer ikusi dudana eta zergatik ez dudana onartu. Gainera, pilotariaren jarrera hori gertatzen denean, ikusleak ere epailearen aurka jartzen dira eta hori pilotariei esaten zaie. Orduan pilotariak barkamena eskatu izan

Beotibarren jarraituko dut baina orain ezin-gitu partidak epaitu

Klubean jende on asko ezagutu dut eta pilotaren alde lan egiten dutenak eskertu beharra ditut

du. Ohituta gaude horretan... Gertatu izan da ere, partida baten ondoren pilotariarengana joatea eta barkamena eskatzea, «baina momentu horretan hori ikusi dut». Duda baldin badaukatez dutalxatzen eskua.

Telebistak ondoan izateak ez luke lagunduko epailearen lana zuzenagoa izateko?

Ez. Telebistako errepikapenak ez du ezertarako balio, erabakia momentuan hartu behar da. Telebista partida jende gehiagok ikusteko balio du.

Zaila al da karneta lortzea?

Ez, arautegia ikasi behar da. Karneta atera eta astero-astero partidak zeuden. Galdetegi bat bete behar da. Irailean hasi eta sanjoanetan bukatzen da denboraldia: topera, etxean gelditu gabe.

Esaten dutenez, epaileak futboleko arbitroaren antza hartzen ari da. Nola ikusten duzu hori?

Ez zait iruditzen, zerbait egongo da, baina ez asko. Egia da ni epaile bezala, futbola ikusten dudanean arbitroen akatsak ikusten ditudala baina ez naiz asko haserretzen, badakidalako zer den hor barruan egotea; kritika diferentea da. Hanka denok sartu dezakegu.

Baina partidak diferente ikusiko dituzu telebistan edo epaileen lekutik, ezta?

Telebistan ikusten ditudanean epaileen begiekin ikusten ditut: gehiago gozatzen da, ez zara baten alde edo bestearen alde jartzen, pilota ikusten dut, jokua. Baina dirua ez dut inoiz jokatzen! Nire jokalarien akatsak ikusten ditudanean piztu egiten naiz, sufritu egiten dut batez ere aukerak edo gaitasunak dituela baina ez duela aprobetxatzen. Amorrua ematen dit horrek.

35 urte inguru orduan epaile izango dituzue kontatzeko?

Bai, onak eta txarrak, denetarik. Batzuetan poza eta beste batzuetan negarria, denetik tokatu zait ikustea eta egitea.

Asko aldatu al da epailearen lana azken urte hauetan guztietan?

Ez pentsa... Gutxi gorabehera berdintsu jarraitzen dugu. Epaileok asko aguantatu eta jasan behar izaten dugu, dirua tartean badago are eta gehiago! Dirua badago denentzako da edo ona edo txarra. Bazuentzat ona eta besteentzat txarra. Mundu honetan dirua tartean dagoenean beti txarra.

Zein haserretzen da gehiago epaile baten aurrean, apustua egin duena edo pilotaria bera?

Epaileak hanka sar dezake, dudarik gabe eta normala den bezala. Pilotaria harrotzen bada jendea bere alde jartzen da askotan eta epaileak isildu egin behar du, bere lekuan geratu eta segi. Aguantatu egin behar da, urte batzuk egin ditugu hori ikasteko. Kasu egiten hasten bazara gauza guztiak, ezin da bizi. Baina lehen esan bezala; dirua jokatu duen hori ere...

Zure ibilbidea pilotaren munduan VI. Hitz Txapelketan omduan nahi izan zuen Aurrera-Saiazek

» DI-DA BATEAN

- **Pilotari bat.** Aimar Olaizola.
- **Frontoi bat.** Beotibar.
- **Final bat.** Gure mailan, Berria Txapelketan jokatuakoa, polita izan zen. Profesionaletan asko...
- **Beotibar.** Buf... Ezinbestekoa.
- **Indarra.** Irujo.
- **Dejada.** Aimar.
- **Airez.** Titin eta Aimar gehienak.
- **Sakea.** Irujo, Bengoetxea VI.a...
- **Hankak.** Oinatz Bengoetxea.
- **Burua.** Aimar. Pilota nora bidali nahi duen momentu oro daki.

Beotibar pilotalekuan. Zer moduz?

Oso pozik nago. Zerbait banekien, somatu nuen zerbait egingo zidatela... Jende on asko ezagutu dut eta dago klubean. Mutiko oso jatorrak daude eta gustura daude gurekin. Eskertzekoa da dena, batez ere Luis Galarragaren lana. Asko eskertzen diot. Lankide izateaz gain, oso laguna ere badu eta lan handia egin du eta egiten ari da pilotaren alde Tolosan eta Tolosaldean.

Nola ikusten duzu klubean egotera gaur egun?

Klub bezala Aurreran (Tolosa) jende gutxiarekin hasi ginen, diruz asko kostatzen zen eta poliki-poliki, Luis Galarragarekin elkartu ginen Aurrera-Saiaz osatu genuen. Gastuak gutxiago izan ziren, diru laguntza gehiago genituelako. Eskola sendoa izateko laguntza behar da, dirua behar da: pilota azkenean garestia da. Materiala garestia da, fitxak... Diru asko joaten da. Fitxarekin 45-47 pilotari ditugu eta haur asko daude orain. Txikienekin Renobales, Belloso, Olaetxea... daude: etorkizuna badago. **la-ia zure etxea da Beotibar...**

Han elkartzen gara askotan Anize-rik Lazkao, Luis eta ni. Entrenamenduak eta prestaketa ikusten ditugu eta gabeziei erreparatzen diegu: zer hobetu behar den, zertan egiten duten gaizki...

Pilotaria izan zara noizbait?

Txikitan jolasten nuen baina lehenago zailagoa zen pilotara dedikatzea, orduan lana egin behar zen. Beste behar batzuk genituen... Txikitatik hara joaten nintzen, Beotibarera, jolastera. Orain lehen baino errazagoa da pilotan aritzea.



Joan den larunbatean egin zioten omenaldia Andres Aramendiri. Irudian, Olaetxearekin. A. IMAZ

Santiago egoitzako langileek manifestazioa egingo dute etzi

Villabona » ELA sindikatuak egin du deialdia langileen aldarrikapenekin bat egiten duela adierazteko.



Egoitzako langileek egindako elkarretaratzeko irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

ELAkiragarri duenez etzi, ostirala, 11:30ean Villabonako udaletxeako plazatik abiatuta, manifestazioa egingo dute Santiago egoitzako langileek.

Sindikatuak langileen aldarrikapenekin bat egiten duela eta «eskera-erak egiteagatik sortu den egoera» salatzeko deitu du manifestazioa.

Lanuzteak irailaren 15era arte luzatuko dituzte

Era berean, langileek greba irailaren 15era arte luzatuko dutela ere esan du ELAk. «Maixel Arrieta alkateak egoitzaren arazoari irtenbidea eman ahal izateko negoziatu nahi ez duenez langileek grebarekin jarraitzea erabaki dute», adierazi du sindikatuak.

«Villabonako Udaleria ANV bezala aurkeztu zen alderdiak PP eta EAJren jarrera bera hartu du: Udalak zerbitzua enpresa bati esleitu zionez, ez dela bere erantzukizuna dio. Esaten dutenez, ez da beraien eskumena, Foru Aldundikoa baizik. Azken egunetan udal-egoitzan eskaintzen duten zerbitzua ez dela udal-zerbitzua ere esan dute».

ELA «harrিতa» dago «ezkerreko dela dioen alderdi batek» PP

eta EAJren politika bera egiten duelako. «Azpiktratatutako langileek oso argi dute zernahi duten: egoitza udal-egoitza den ez da udal-zerbitzua eskaintzen dute», gaineratu du.

«Ez langileak, ezta bere lan baldintzak ere, ez dute zertan erabaki politiko batengatik zerbitzu bat pribatizatzeak hartutako erabakiaren erantzule izan behar. Honek euren lan baldintzak okertzen ditu», argitu dute.

Udala «pozik» azokak izandako harrerarekin

Ibarra » Hirugarren astean jende asko gerturatu zen azokara eta jada frogaldi epea pasata iraunkortasun izera eman nahi diote.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udala «pozik» dago Emeterio Arrese plazan ostegunero egiten den azokak izan duen harrerarekin. Hain justu, «azoka ospatu zen hirugarren astean bisitari ugari izan zituen, bertako eskaintza anitzak erakarritu. Zentzu honetan, Udalak ibartar guztiei ekimen honi eman dieten erantzun bikaina eskertu nahi die», adierazi

du Udalak ohar baten bidez. Era berean, datozen asteetan «udalerrian nahiz inguruetan ekimen haur ezagutzen joan ahala» azoka finkatuz joango dela espero du Udalak. Hori dela eta, «ekimen haur arautuko duten udal ordenantza lanter» hasi direla ere jakinarazi du. Erabaki honekin, «Udalak iraunkortasun izaera eman nahi dio orain arte frogaldian aurkitzen zen udal azokari».

Udal azoka ostegunetan izaten da, 08:00etatik 13:30era, eta era ezberdinetako postuak biltzen ditu, besteak beste, hestebete eta gaztak, fruta eta barazkiak edota pastak eta gozokiak bezalako produktuak saltzen dituztenak.

Laburrak

Abuztuaren 7ko herri afarirako izen-ematea

BERASTEGI » Berastegiko Salontzo jaien baitan herri afaria egingo dute abuztuaren 7an eta izen-ematea hilaren 27an amaituko da. Txekorra burduntzian jan nahi duten 12 urtetik beherakoek 8 euro ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 16. Txartelak Urepel eta Basurde elkarteetan eta Zelai tabernan erosi daitezke.

Segituan hasiko dira lorez apainduriko etxeak ikusten

BERASTEGI » Datorren astean hasiko dira Berastegiko Kultura Batzordeko kideak *Berastegi Lorez Blai!* txapelketan izena eman duten etxeetara gerturatzen ikuskapena egiteko. Kaletik ikusten dena bakarrik hartuko dute kontuan eta argazkiak aterako dituzte. Sariak abuztoko Salontzotako herri afarian banatuko dituzte.

LABek T. Arriaraneko zuzendaritzaren jarduera salatu du

Villabona » Sindikatuak zuzendaritzaren, eta zuzendaritzaren, eta administratzaile bakarraren jardueraren berri eman du.

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuak «publikoki salatu» nahi du Villabonako T. Arriaran SAL enpresako zuzendaritzaren jarduera eta «batez ere, bere administratzaile bakarrarena, Jose Ramon Chinchurreta Garmendiarena». Sindikatuak esan duenez, «enpresaren barne antolakuntza, edo egokiago antolakuntza eza, borondatez bultzatzen dabilako» egin du salaketa.

«Aspalditik, konkretuki langile ordezkari aldaketa suposatuz zuten azken hauteskunde sindikalak burutu zirenetik —ELAko ordezkari-tza izatetik LABekoa izatera pasa ziren—, oso egoera larria gertatzen ari da langile baten eskutik, zeinak

beste langileak zelatzen, mehatxatzen eta iraintzen dituen, eta eraso fisikoetarako iritsi da», argitu dute. Era berean, aipatu egoera enpresa zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzaren aurrean ere salatu dute.

LABeko ordezkariak enpresa zuzendaritzarengana jo du jada «egoera honen inguruan hitz egin eta irtenbideak bilatzeko asmoz egoerak okerrera egin aurretik», baina enpresak «hitz politetarik haratago ez du ezertxo ere egin». Hau dela eta sindikatuak «eman den eta jarraitzen duen egoera honen erabat ados dagoela edo gutxienez baimentzen dituela» ondorioztatzen duela esan du.

Horiek horrela, LABek egoeraren erantzule administratzaile bakarra, Jose Ramon Chinchurreta Garmendia, egiten duela argitu du. «Bere axolagabekeria publikoki salatzen dugu eta aurrerantzean gerta litezkeen egoeren erantzule ere egiten dugu», azaldu dute.

Gutunak

Ibarrako Udaleri erantzunez

Ibarrako Udalak, herriko plazan, presoen eskubideen aldeko kanpaldien harira ateratako komunikatuari, erantzuna eman nahi dio jarraian Amnistiaren Aldeko Mugimendua:

1. Ez dugu akordioarik traizionatu, ez baitzegoen inolako akordioarik. Plenoan, onartu zuten mozioak haserrea sortu zuen gerturatutako herritarren artean. Urrats praktikotik eta zehatzak exijitu genituen eta bilera egiteko proposamena ere herritarren partetik ateratu zuten. Udal ordezkariak onartu egin zuten eta hil honen amaieran ipini genuen hitzordua. Bilera bat eta akordio bat ez dira gauza bera. Hala ere, irtenbide bateratu bat aurkitzeko borondate osoa dugu eta horrela adierazi nahi dugu.

2. Eskatu beharreko baimenei dagokienez, Udalaren oharrak nahasmena sortzen du. Zehazki, kiroldagiko ekintza bat aipatzen du. Ekintza hori (prentsaurrekoa) Bai Euskal Herriari ekimenak antolatuz, gurekin zerikusirik ez duen talde batek.

3. Kanpaldia egiteko ez genuen baimenik eskatu. Hori horrela da eta arrazoi simplea du. Egun, orokalkal presoen aldeko ekimen oro erreprimatua da ertzainaren partetik: argazkiak atzetik zalak amorratzen pare, karga polizialak, isunak, terrorismoa gorapaitzeaz auzipetu... edonork uler dezake

baldintza hauetan ez dagoela bermatua biltzeko eskubidea. Kanpaldian bertan, gauean lotan gine-la, ingurumarian bueltak ibili ziren eta asteazken gauean, goizeko 04:30ean pankartak kentzen aritu ziren. Baldintzak aldatuko balira, Rodolfo Arenes morroiek bakean utziko bagintuzte, ez genuke arazorik behar diren baimen guztiak eskatzeko. Are gehiago, nahiago genuke modu horretan jardun.

4. Txelo Romeo alkatearen aburuz «indarrean dagoen ordenantza kontzeptu honetan zenbait diru laguntza ematea jasotzen du» eta aplikatzeari utzi omen zitzaion herrian presorik ez zegoelako. Puntu gatazkatsua hau behin-betiko argi utzi nahi genuke eta horretan saiatuko gara:

2008ko uztailearen 29ko plenoko gai ordenak ez zuten interes bereziko gairik itxura batera eta horrexegatik hautetsi independentistek ez joatea erabaki zuten. Inongo herritarrik ere ez zen azaldu. Baina bilkura hastear zela, eguneko gai-zerrendan ondoko gaia sartzea erabaki zuten: «Espetxeen dauden senitartekoei zuzenduriko garraio diru laguntza araudia indargabetzea». Honela, zehatz mehatz.

Bozketan, EAJ, EA, PSE eta IU-Aralarrek aldeko bozka eman zuten. Hurrengo egunean, presoen senideak Udaletxeako ordezkari-ekin bildu ziren eta lasai egoteko esan zieten hauek, diru laguntzak mantendu egingo zirela-eta. Bitar-

tean, bezperan indargabetuak zizuten. Senideak, udaratik bueltan ohartu ziren jokaldiaz, jokaldi miserabilez, eta hau bai, maizkulaz, traizioaz.

Ibarrako edozein herritarrek konprobatu dezake egia diogula udaletxera joan eta egun hartako utziko bagintuzte, ez genuke arazorik behar diren baimen guztiak eskatzeko. Are gehiago, nahiago genuke modu horretan jardun.

5. Txeloko dio orain egoera beraztertutako behar dutela. Ederki, baina ordenantza hura indargabetuta dago, gauzak argi. Beste araudi berri bat beharko da, edo gainontzean beste moduren bat. Ikusiko da zein aukera eskaintzen dituen udal politikak.

6. Adostutako bilerara azalduko diren herritarren inguruan beren kezka azaltzen dute. Bertara, Goar Jimenez eta Maite Aranalde, herriko presoen senide bana eta AAMko kide bat joango dira, denak ibartarrak, noski.

7. Eta konponbide bateratu baterako borondate osoa eramango dute. Pazientzia izateko prest gaudu, malgutasuna izateko prest, forma edo erritmo ezberdinak errespetatzeko prest. Gauza bakarra exijituko dugu: konpromezu zehatzak. Dispersioaren aurka badaude, dispersioaren aurkako politika zehatzak ematea.

8. Kanpaldia antolatuz genuen genion bezela: «Euskal Presoak Euskal Herrira, hitzez eta ekintzez».

Amnistiaren Aldeko Mugimendua. Ibarra.



Erleta Eskolako jangelan, haurrak 'Sukaldean esperimentatu' izeneko udako tailerra egiten ari dira. Atzokoan erroskilak egin zituzten begiraleen laguntzarekin. ASIER IMAZ

Udako tailerretan sukaldean

Leitza » Udako tailerren barnean sukaldean sartu zituzten herenegun 6-12 urte bitarteko haurrak. Esperimentatuz jarraituko dute etzira arte.

ASIER IMAZ

Udako tailerren bigarren ikastaroa, *Sukaldean esperimentatu*, herenegun jarri zuten martxan Leitzan.

Lehen Hezkuntzako haurrek tailer honetan «usaimena, zapo-rea, ikusmena, ukimena, esperi-

mentazioa... lantzen dituzte, beti ere sukaldearen inguruan».

Sukalde lanetan sartu aurretik, lehenik Erleta Eskolako jangelan haurrak taldetan banatu zituzten. Ondoren masa egiten hasi ziren sukaldari gazteak. 11:00ak inguruan atsedendaldiaren txanda eto-

rriz zen. Sokasaltoan eta hainbat jolasetan ibili ondoren, jangela barnera itzuli ziren denak, masatik erroskilak egiteko asmoz. Esperimentazioaren azken urratsa begiraleek eman zuten, sua eta olio beroa medio.

'Udan ez gelditu etxean!'

Udako tailerrak ekainaren 29an hasi ziren, *Udan ez gelditu etxean* leloarekin. Lehengo astean *aire, aire!* ekimenaren barnean ibili ziren haurrak, ikastaro amaiera os-

patuz. Orain sukalde munduan aurkitzen dira eta hilaren 13tik 17ra *Hi haiz artista!* tailerrari ekingo diote. Ondoren *Makinekin jostatu*, *Munduari bira aste batean* eta *Momenturik hoberenak* etorriko dira. Abuztuaren 7an amaituko da aurtengo ekimena.

6-12 urte bitarteko neska-mutilen artean Saharatik etorritako hainbat haur ere aurkitzen dira. Beraz, kultura desberdinen topaleku ere bilakatu dira Udako tailer-rrak.

Haurrekin solasean

Atzokoan nahikoa hiztun aurkitzen ziren sukaldari gazteak, ongi pasatzen ari ziren seinale: «Jostatu eta lana egiten dugu». «Gaur erroskilak egiten ari gara». «Beti jolas batzuk egiten ditugu». «Eta sukaldean noiz hasi zineten? «Atzo mazedonia egin genuen». «Jan ere bai». «Goxoa atera al zitzaizuen? «Baaai». «Egin genuen sagarra, udarea eta platanorekin». «Eta laranjarekin». «Eta zukuarekin». Sukaldean ongi? «Baaai». Amen.

Aresok txapelketa utzi du


A. IMAZ

Asteburuan Aresoko taldeak 600 kiloko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren 2. jardunaldia jokatu behar zuen Mungian. Epailleen eduki dituzten tirabiren ondorioz ordea, planto egin zuten. Hala eta guztiz ere, argi dute arazoa barnean konpondu beharra dagoela, ez komunikabideetan: «Epaillee-

kin tirabira izandu dugu eta arazoia hori da. Epailleek ibiltzen duten kriterioa talde guztientzako ez dela berdina iruditzen zaigu guri. Eta erabaki horiekin, besteen artean, Areso ere oso kaltetua ateratzen da. Hori jasateko ez gaude prestatu eta horrexegatik uko egitea erabaki dugu, protesta gixara».

«Aspalditik datorren kontua da.

Hemendik eta handik saiatu gara epailleen lana bateratua izan dadin, kriterio batekin lan egin dezaten, baina beraien partetik ez da aldatzarik sumatu eta puntu honetara iritsi gera. Egia da azkeneko tiraldian lehertu zela baina lehenagotik heldu den kontua da. Federazioa, epaile eta tiralarien artean konpondu beharko litzatekeena».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 032. ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Igandean Arcena mendizerrara (Valderejon, Cueto eta Mota mendiak igoz) joango da Al-pino Uzturre elkarteak. Izen-ematea, elkarteak (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

Kirolak

■ **Tolosa.** Hilaren 11n arroila jaitseira antolatuta du Oargik La Leze kobazuloan (Araba). Doan Oargikozentzat eta 4,5 euro ez bazkideentzat. Izen-ematea, 688 698642 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lotu eginez eta otorduak jatekeentzen eginez. Izen-ematea, 687 568258 eta 664 129216 zenbakietan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubin hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodi-llor eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkarteak.

■ **Tolosa.** Udako liburutegia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.

■ **Tolosa.** Udagazteko irteerak: bihar Donostiako Santa Klara lirlara, hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Mutriku eta Spraykada graffiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkea. Izen-ematea, Topagunean.

Irteerak

■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailearen 12an 10:30ean (7 kilometro). Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.

■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatuta du Harizpe jubitatu elkarteak. Izen-ematea, elkarteak (pentsio osoa 257 eta 262 euro).

■ **Tolosa.** Etzi Iruñeko San Fermin jaietara irteera antolatuta du Harizpek, Blanca de Navarra hotelean bazkalduz. Izen-ematea, elkarteak (33 eta 30 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiolo, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Urteak eman duena urtekarian bilduta

ALTZO ■ Urtero bezala, udarekin batera iazko urtekaria argitaratu du Altzoko Udalak. Udaletxean eginiko ekitaldian aurkeztu zuten jendaurrean aipatu urtekaria, *Haunditzen haunditzen* izenburupean. Aleak banatu zituzten bertan eta aretoa bete zuten herritarrek. Ekitaldian, besteak beste,

urtekarian argitaratu dituzten bertsoak abestu zituzten guztien artean. Bertso hauetaz gain, herriko hainbat biztanleri elkarrizketak, errezetak, jaiotzak, ezkontzak, hainbat bitxikeria,... topa ditzake irakurleak. Luzerako etxean ondo gordetzea merezi duen argitalpena, dudarik gabe. **HITZA**

A Agurrak



Urte askoan!

Din-dan kanpaiak, txin-txin txoriak, Uxuen zorion festak direnean...
Etxekoan 5 muxurik goxoan zure urtebetetze egunean.



Urte askoan!

Udane Sarasola. Zorionak joan den igandeko partez, etxeok eta Miguelen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Urte askoan!

Beñat eta Ugaitz Elola (Albiztur). Zorionak!! Gure txikitxoek. Bere lehenengo urtebetetzean, bereziki aitatxok eta amatxok.